

09 / KARRERA  
AMAIERAKO PROIEKTUA  
EUSKARAZ

18 / GONZALO ABAD  
ELECTRONICS AND  
COMPUTING  
DEPARTMENT




21 / BERRIZTAGARRIEN  
ERABILERA,  
ETORKIZUNEKO  
ERRONKA

# MUniversitas

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ALDIZKARIA | 2009ko Udazkena | 13. zenbakia

BOLOGNARA  
EGOKITUTAKO  
ESKAINTZA PREST!





**ZERBITZU ERREGULARRA  
ETA DISKREZIONALA  
ESKATU AURREKONTUA**

SERVICIO REGULAR Y DISCRECIONAL  
PIDA PRESUPUESTO

**IBILBIDEA ETA ORDUTEGIA  
(2009-2010)**

**AZPEITIA - ARRASATE / OÑATI / ESKORIATZA**

AZPEITIA	AZKOITIA	ELGOIBAR	EIBAR	ARRASATE	OÑATI
Anbulatorioa Igerilekuak	Julio Urkijo Goiko Kale	Markina-ra bidean	Gasolindegia	Eroski (*)	Eteo
06:35	06:43	07:00	07:10	→ 07:30	→ 07:45
12:10	12:18	12:35	12:45	→ 13:10	→ 13:20
14:50	14:42	14:25	14:15	← 13:50	← 13:30
20:00	19:52	19:35	19:25	19:00	← 18:45

**BILBO - DURANGO - ARRASATE / OÑATI / ESKORIATZA**

BILBO	ZORNOTZA	DURANGO	MATIENA	ABADIÑO	ATXONDO	ELORRI	ARRASATE	ARRASATE	ESKORIATZA
Termibus	Rotonda Ondoko Geltokia	Magdalena	Eskolen ondoan	Ohiko Geltokia Zelaieta	Errepide general ondoan	Goiko Gelto. Beheko Gelto.	Eroski (*)	GEP	Huhezi
06:20	06:35	06:58	06:50	06:55	07:00	07:05	07:30	→ 07:40	07:50
11:45	12:00	12:25	12:15	12:25	12:30	12:35	13:05	→ 13:15	13:25
15:10	14:35	14:55	14:40	14:30	14:25	14:20	13:50	← 13:40	13:30
20:20	19:45	20:05	19:55	19:40	19:35	19:30	19:00	← 18:40	18:30

(\*) Oharra: Puntu honetan transbordo da egingo da. (Eteo, Eskola-Huhezi)  
 (\*\*) Zornotzatik ziurtatuta dago egunero joan etorriari. Bilbotik astelehen eta ostiraletan baita ere baina egunero joan etorriari ibil dadin, gutxinez 12 ikasle txandako egon behar dira, bestela, ez da zerbitzu hori eskeiniko



IBAI-ONDO 20 • 20720 AZKOITIA • GIPUZKOA • Tfno.: 943 851159 • Fax: 943 857072  
[www.lagipuzcoana.net](http://www.lagipuzcoana.net) • [info@lagipuzcoana.net](mailto:info@lagipuzcoana.net)



# Koldo Mitxelena

KOLDO MITXELENA Kulturunean egiten diren ekitaldiak interneten bidez ikus ditza-kegu, dohaineko RealVideo programa instalatu bezain pronto ikus:  
[www.gipuzkoa.net/kultura](http://www.gipuzkoa.net/kultura)



KOLDO MITXELENA Kulturuneko Librategiko liburuak zure esku daude; zure ohiko liburutegian eska ditzakezu, bertako liburuzainek guri eskatuko dizkigute eta biharamunean zurean izango dira. Zehaztasun gehiago: [lam-pib@gipuzkoa.net](mailto:lam-pib@gipuzkoa.net)



 Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa  
Kultura eta Euskara Departamentua  
Departamento de Cultura y Euskera



Koldo Mitxelena Kulturunea. Urdaneta 9. 20006 Donostia. [www.gipuzkoakultura.net](http://www.gipuzkoakultura.net)

## AURKIBIDEA

**03**

Editoriala

**04-07**

Berriak

**08**

Iritzia · JCarlos García

**09**Karrera amaierako proiektua  
euskaraz**10-13**

Erreportajea · Masterren eskaintza hiriburuetara hedatu nahian

**14**

Erakundeak · Alecop

**15**

GEP · Goi Eskola Politeknikoa

**16**EZF · Enpresa Zientzien  
Fakultatea**17**HUHEZI · Humanitate eta  
Hezkuntza Zientzien Fakultatea**18-19**

Elkarrizketa · Gonzalo Abad

**20-21**

Ikerkuntza

**22-23**

Doktore tesiak

**24**

MU kirol zerbitzua

**25**

Bizitza unibertsitarioa

**26**

Agenda

# BIDERIK ERAGINKORRENA KRISIARI AURRE EGITEKO

**K**risi garai gogorretan ikerkuntzaren aldeko apustua egin behar dela dio Carlos Garcíak “*investigación en tiempos de crisis*” izenburuko iritzi artikuluaren. Innobasqueren sorkuntzarekin bideari eutsi zion Eusko Jaurlaritzak orain bi urte, eta erronka estrategikoa bilakatu da Euskal Herriko administrazio, enpresa, unibertsitate eta berrikuntza guneentzat. Mondragon Unibertsitateak ere ikerkuntzaren aldeko apustu sendoa egin du, eta horrela adierazten dute David Sanchezek eta Aitor Urtzelaik “*innovación abierta*” goiburuko artikuluaren. Guztien arteko lana da ikerkuntza, eta irekia izan behar du, gaur egungo erremintak posible egiten dutelako, guztien ekarpenak jasotzea erraza delako eta horrela lortuko direlako emaitzarik onenak. Sorkuntzaren eta berrikuntzaren urtea da aurtengoa Europaren, eta Mondragon Unibertsitateak ez du albo batera utzi nazioarteko esperientzia anitzetan oinarritutako ikerkuntza. Horrexegatik, gero eta gehiago dira atzerrian ikasketak eta proiektuak egiten dituzten MUko ikasleak, eta ikasketak egitera gurera gerturatzentzen direnak. Gentzane Aldekoak *MU*niversitas aldizkariko zenbaki honetan jakitera eman duenez, atzerri joan nahi duen ikasleak gero eta aukera gehiago ditu. Horretarako, askotariko programak jarri baitira mar-

txan azken urteotan. Graduondoko ikasketek ere berebiziko garrantzia dute unibertsitateko kolektiboarentzat, etengabeko prestakuntzak ateak irekitzen dituelako eta bide horretatik ere krisiari aurre egin ahal izango zaiolako. Mariam Bilbatua (HUHEZI), Xabier Sagarna (GEP) eta Jose Luis Abaunz (EZF) elkarrizketatu ditugu eta Mondragon Unibertsitatearen masterren berri eman digute. Dagoeneko, arlo honetan ere, etxeko lanak egin

*“Sorkuntzaren eta berrikuntzaren urtea da aurtengoa Europaren, eta MUk ez du albo batera utzi ikerkuntza nazioarteko esperientzia anitzetan oinarritutako”*

ditu gure unibertsitateak eta aurten Bolognara egokitutako eskaintza zabala izango da. Gainera, Aneca erakundearen onarpena jaso dute ikasketa horiek. Gure fakultateetatik kanpo, Donostian Bilbon eta Gasteizen ere masterrak egiteko aukera eskaintzen du MUk. Horiexek dira krisiari aurre egiteko biderik eraginkorrerenak. Ikerkuntza eta etengabeko formazioa.

**MUniversitas**

**Argitaratzailea** Mondragon Unibertsitatea • Loramendi 4 • [23. p.k.] ARRASATE 20500 (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 21 85 | Faxa: 943 71 21 93 | E-posta: info@mondragon.edu

**Koordinatzailea** Artxam Komunikazioa | **Erredakzio kontseilua** Joxe Aranzabal, Susana Azpilikueta, María Angeles Iñurritegi eta Idoia Peñakoba  
**Laguntzaileak** Aitor Urzelai, David Sanchez


Tirada 5.500 ale | **Lege gordailua** SS-1360/05 | **Diseinua eta publizitatea** Artxam Komunikazioa  
**Azaleko ilustrazioa** Lorena Martínez | **Argazkiak** M.U / Josetxo Aranzabal | **Moldiztegia** Gertu (Oñati)

## NAZIOARTEKO AKADEMIAKO KIDE IZENDATU DUTE PEDRO J.ARRAZOLA

Pedro J. Arrazola MUko Mekanika eta Ekoizpen Industria saileko irakaslea Ekoizpen Ingeniaritzako Nazioarteko Akademiako (CIRP) kide izendatu dute Bostonen, abuztuan erakundeak izandako batzar nagusian. Akademia hau da diseinu, fabrikazio eta produkzio arloetan ikerketa sustatzen duen mundu mailako erakunderik garrantzitsuena. Ikerketa eta berrikuntza arloetan lortu dituen emaitza bikainengatik hautatu dute Arrazola. Akademia, 44 herrialde industrialeko 630 kide inguruk osatzen dute. Erakundearen xede da nazioarteko sare bat garatzea, goi mailakoa, ikerketa sustatzeko unibertsitate eta industriaren artean, ekonomiaren garapena eta gizartearen ongizatea lortzen laguntzeko.

## BERANDU BAINO LEHEN

Joseba Azkarra irakasleak *Berandu baino lehen* saiakera plazaratu du Alberdania argitaletxean, XXI. mendeko bizi-moduari egingako erretratu sorta bat. Egileak arlo hauetako dituliburuan: depresioa eta bere kausa sozialak, euskal subiranismoa, gay kultura, korporazio globalak, mendebaldearen garapen eredu, krisi energetikoa, umeen heziketa eta patologia psikiko berriak.



**CONGRESO**  
El congreso contó con la presencia de casi 70 participantes, procedentes de 8 países, y se realizaron 38 presentaciones técnicas orales.

# BERRIAK

## THE 9TH INTERNATIONAL WORKSHOP ON ELECTRONICS, CONTROL, MEASUREMENT AND SYSTEMS ECMS'09

The 9th International Workshop on Electronics, Control, Measurement and Systems, ECMS'09, was held on July the 8th to the 10th at the Engineering School of MU, in Mondragón. This biannual Workshop born from professional events started in 1993 as Liberec Technical University of Czech Republic and Paul Sabatier University from Toulouse, France, and later transformed into regular International Workshop. MU has been participating in it since its 3th edition, in 1997. Traditionally, it has been held, alternatively, in Toulouse and Liberec, but last year we were invited to organise this 9th edition.

The aim of this Workshop was sharing research advances and results on the covered topics among University communities. The meeting also offered opportunities to open future training and

research collaboration lines, in the frame of the new European Universities Convergence project. Near 70 participants, from 8 countries, attended to 38 oral technical presentations. There were also three invited presentations. All the papers had been collected in a Workshop Proceedings book.

The Workshop covered the following topics:

- Automatic Control,
- Robotics,
- Electrical Drives,
- Intelligent Materials and Devices,
- Modelling and Simulations of Processes,
- Dependability,
- Signal and Data Processing,
- Electrical and Acoustical Measurement,
- Education/Transfer Technologies.



## EZFK ETA HUHEZIK BIKAIN ZIURTAGIRI OFIZIALA LORTU DUTE

MONDRAGON UNIBERTSITATEAREN ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEAK (OÑATIN ETA BIDASOAN) ETA HUMANITATE ETA HEKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAK (ESKORIATZAN) URREZKO BIKAIN ZIURTAGIRIA LORTU DUTE EUSKARA KUDEATZEKO DUTEN ERAGATIK

Nahiz eta HUHEZIKo zein Enpresa Zientzien fakultateetan hiru hizkuntzatan irakasten den-euskeraz, gaztelaniaz eta ingelesez-,

euskara da erabilera hizkuntza, eta lan prozesu guztiek hizkuntza horren arabera antolatuta daude, Bikain ziurtagiriak egiaztatu duen bezala.

Bikain ziurtagiria ofiziala, publikoa eta doakoa da, Eusko Jaurlaritzak ematen du, eta egiaztatzen du enpresa nahiz erakunde batean euskarak zer presenzia, erabilera eta kudeaketa duen. Bi fakultateetako ordezkariek oso gustura dira jasotako onarpenerak.

# MONDRAGON UNIBERTSITATEAK HASI DU IKASTURTEA EKITALDI OFIZIALAREKIN



ARGAZKIA: MU

## COMIENZO OFICIAL

El acto de apertura oficial de curso contó con la presencia del Lehendakari Patxi Lopez y la consejera de educación Isabel Celáa.

IRAILAREN 23AN EMAN ZION ZASIERA OFIZIALA IKASTURTEARI MONDRAGON UNIBERTSITATEAK. PATXI LOPEZ LEHENDAKARIA ETA ISABEL CELAÁ HEZKUNTZA SAILBURUA IZAN ZIREN, BESTEAK BESTE, ESKORIATZAKO HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAN EGINIKO EKITALDIAN. ETORKIZUNEO ERRONKEN BERRI EMAN ZUTEN MUKO ARDURADUNEK, ETA EUREN BABESA ESKAINI ZIETEN JAURLARITZAKOEK

Ikasturtea irekitzeko ekitaldian parte hartu zuten, besteak beste, Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako Lehendakari, Iosu Zubala Mondragon Unibertsitateko errektoreak eta Isabel Celaá Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak. Halaber, ekitaldian izan ziren Euskal Herriko Unibertsitateko eta Deustuko unibertsitateko errektoreak, Iñaki Goirizelaia eta Jaime Oraá. Ekitaldira gonbidatutako artean izan zen, baita ere, Pedro Lasa-gabaster Eskoriatzako alkatea.

Hasierako hitzaldian, Iosu

Zubala MUko Errektoreak unibertsitatearen egitekoa azpimarratu zuen, bere hitzetan unibertsitatea baita "gizartearen giltzarria, inguruneko empresa-ehuna eraldatzen ari den herrialde baten etorkizun ekonomiko eta sozialarenengakoa". Eraldaketa horiezin-bestekoa dela adierazi zuen, etorkizunean fenomeno globalak eragingo dituen aldaketen aurrean babestuago dauden sektore eta posizioetara egokitzen. Hain zuzen ere, unibertsitatearen eraldatze-funtzio horren inguruan, Mondragon Unibertsitateko buruak nabarmendu zuen unibertsitateak Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrura moldatzeko egin duen lana, eta prestakuntzaren arloan nahiz proiektu berrietan unibertsitateek berrikuntza sortzearen garrantzia ere azpimarratu zuen. Hor kokatzen da, esaterako, Mondragon Unibertsitatea buru duen Basque Culinary Center proiektua.

**EUROPAKO ESPARRURA EGOKITUTAKO TITULAZIOAK**  
Aurreko ikasturtean titulazioak europako esparrura moldatu zituen lehen euskal unibertsita-

tea izan da Mondragon Unibertsitatea, eta aurten beste lau gradu berri erantsiko dizkio bere eskaintza akademikoari. Hortaz, 10 gradu-titulu emango ditu, eta bigarren zikloko beste zortzi.

Hauak dira aurtengo ikasturtean emango diren titulazio berriak; Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza (LEB); Ikus-entzunezko Komunikazioa; Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.

Irekiera ekitaldian aurreko urte akademikoaren laburpena egin zuen Idoia Peñakoba MUko idazkarinagusiak. 2008/2009 ikasturtean 3.494 ikasle matrikulatu ziren. Horietatik, 3.099k graduikasketak egin zituzten eta beste 395 graduondokoetan eta hirugarren zikloetan matrikulatu ziren. Peñakobak nabarmendu du doktoretza-programetako matrikulazioekizan zuten igoera, %13koa aurreko urtearekin alderatuz.

Goi Mailako Hezkuntza Esparru Europa ezarri ondorengo lehen urtearen ebaluazioan emaitza bikainak izan zirela ere jakinarazi zuen idazkari nagusiak, adibidez ingeniaritzaren kasuan, ikasleen %90ek gainditu zituela ikasketak.

## 9TH INTERNATIONAL WORKSHOP ON ELECTRONICS, CONTROL, MODELLING, MEASUREMENT AND SIGNALS BOOK

The book includes the papers presented at the 9th International Workshop On Electronics, Control, Measurement and Systems, which took place from past July the 8th to the 10th at the Mondragon Unibertsitatea Polytechnics School. In it, recent research advances on power electronics, control engineering and signal treatment, both in voice as in image, are presented.

## ÉXITO DEL CONGRESO ORGANIZADO POR EPS

Las XIV Jornadas de Ingeniería del Software y Bases de Datos (JISBD 2009) se han celebrado dentro de los cursos de verano en San Sebastián, del 8 al 11 de septiembre de 2009, siendo organizadas por EPS. Como viene ocurriendo desde la edición del 2001, se han celebrado, en paralelo y compartiendo algunos actos, de las IX Jornadas de Programación y Lenguajes (PROLE). Ambos eventos son organizados bajo los auspicios de SISTEDES, la Sociedad de Ingeniería del Software y Tecnologías de Desarrollo de Software. Estas jornadas anuales son un foro de referencia donde investigadores y profesionales de España, Portugal e Iberoamérica en los campos de la Ingeniería del Software y de las Bases de Datos pueden debatir e intercambiar ideas, compartir experiencias y divulgar resultados, estableciendo, además, un marco propicio de colaboración entre los distintos sectores y grupos de trabajo estas áreas.

# BERRIAK

**IKERKETA**  
Mondragon  
Unibertsitate-  
aren Goi  
Eskola  
Politeknikoan  
energia  
berriztaga-  
rrien gaineko  
zenbait  
ikerketa egiten  
dihardute.  
Horien artean  
dago honako  
hau, Fundicio-  
nes TS  
enpresarekin  
elkarlanean  
abiarazitakoa.

# MU COLABORA EN UN PROYECTO DE INVESTIGACIÓN PARA EL SECTOR EÓLICO



## EL PROYECTO SE DESARROLLA JUNTO CON LA EMPRESA GUIPUZCOANA FUNDICIONES TS

Mondragon Unibertsitatea está colaborando en un proyecto de investigación, liderado por Fundiciones TS, para mejorar la calidad metalúrgica en componentes eólicos. Fundiciones TS es una empresa guipuzcoana ubicada en Zestoa y dedicada a diseñar y producir componentes en hierro nodular para aerogeneradores eólicos. En la actualidad, fabrica el 15% de la producción mundial de componentes para eólicos.

El proyecto de investigación conjunto que desarrollan Mondragon Unibertsitatea y Fundiciones TS, tiene por objetivo prin-

cipal reducir un tipo de defecto superficial, denominado dross, muy común en piezas de hierro fundidas de gran tonelaje. Actualmente este defecto, producto de las reacciones entre el metal fundido y la arena del molde, se elimina mediante operaciones de mecanizado.

Para minimizar la aparición del dross se está trabajando en la optimización del proceso de fabricación de las piezas, especialmente en la reducción de turbulencias y de oxígeno durante el llenado de los moldes. La reducción del dross lleva una importante disminución de los costes asociados al mecanizado superficial de las piezas, mejorando considerablemente la calidad y competitividad de sus componentes.

# BLOG BAT INFORMAZIO SISTEMAK TALDEARENTZAT

"MU - INFORMAZIO SISTEMAK". HORRELA DERITZO MONDRAGON UNIBERTSITATEKO INFORMAZIO SISTEMETAKO TALDEAK SORTUTAKO BLOGARI. IZENAK BAINA, BADU 2. MAILAKO IZENBURUA, ADIERAZGARRIA: "BIZITZAERRAZTEKO ASMOZ"

Bizitza eta lana errazteko asmoz abiatutako proiektuak komunikazioan du jomuga. Informazioaren joan etorria hobetzeko sortu da erraminta berria. Mondragon Unibertsitateak badu talde bat, Informazio Sistemak izenekoa, sei lagunek osatua: Ana Altuna, Iñigo Cendegui, Ibai Jurado, Mikel Kortabarria, Arantxa Manterola eta Eduardo Sanchez. Denak informatikariak dira, eta beren lana da informatika eta Internet kontuak ondo joan daitezela unibertsitate osoan. Lan nekeza, inondik ere, bi esparru horiek gero eta konplexuagoak baitira, eta gero eta jende gehiagok erabiltzen ditu.



**NUEVO BLOG PARA FACILITAR EL TRABAJO**  
El grupo de trabajo encargado de los sistemas informáticos de Mondragon Unibertsitatea ya dispone de una nueva herramienta de trabajo.

Lan hori errazagoa egite alde-ra, taldeak blog bat sortu du WordPress plataforma erabilita: "MU - Informazio Sistemak". Egileek eurek aitortu dutenez, blogaren bidez partekatu nahi dute informazio interesgarria, unibertsitate barruko zein kanpoko, eta, partekatu ere, unibertsitate barruko zein kanpoko jendearekin.

Oraingoz bi hizkuntza erabili dituzte blogean, euskara eta gaztelania. Atalei dagokienez, berriz, zazpi atal ditu: euskara, Internet, Moodle, OS, Outlook, sailkatugabeak eta segurtasuna. Egileek garbi utzi dute gustura hartuko dituztela kolaborazioak. Beraz, animo!

## DIGITALAIA BEHATOKIA SORTU DA, AZTERTZEKO TEKNOLOGIA DIGITALEN ERAGINA GIZARTEAN

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEAN, HUHEZIN, IKERKUNTZA TALDE BAT SORTU DA, DIGITALAIA, ETA HELBURUA DU AZTERTZEZA TEKNOLOGIA DIGITALAK ZER HARREMAN DUEÑ GURE GIZARTEAREN HAINBAT ARLOREKIN: UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZA, UNIBERTSITATE IRAKASKUNTA, HEDABIDEAK, EUSKARA ETA KOOPERATIBAK

Hasteko, Digitalaia taldeak hobetsi du aztertzea zer harreman duten HUHEZIKO ikasleek -eta baita irakasleek ere- teknologia berriekin. Horretarako galdelegi bat prestatu du Melbourneko Unibertsitatearekin batera, aprobetxaturik Australiako unibertsitateak indarrean duen ikerkuntza proiektu bat, *Educating the Net Generation*, zeinaren bidez hobeto ulertu nahi diren natibo digitalen esperientziak eta nahiak teknologia berriei dagokienez.

Azken batean, informazio horrekin hobetu nahi dira unibertsitate irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak, beti ere teknologia berriak erabilita.

Irailaren erdi aldean, 1. maiako ikasle guztiak bete dute galdelegia, bai Hezkuntzakoek eta baita Komunikaziokoek ere. Gauza bera egingo dute karrearen erdian eta bukaeran. Galdelegiaren emaitzak partekatu egingo dira *Educating the Net Generation* proiektuan dihardtutun unibertsitateekin.

# INVESTIGACIÓN EN TIEMPOS DE CRISIS

Parce claro que la única manera de mantener el alto nivel de vida y bienestar de los países industrializados, y más en tiempos de crisis, es impulsar la innovación empresarial. Así lo demuestra, por ejemplo, el hecho de que 2009 haya sido designado como el Año Europeo de la Creatividad y la Innovación, o en un ámbito más cercano, la creación hace ahora dos años de Innobasque, la Agencia Vasca de Innovación.

Por otra parte, la ministra de Ciencia e Innovación, Cristina Garmendia dice, ante el Congreso de los Diputados del 13 de julio, que "precisamente ahora, en tiempo de crisis, es el momento de apostar por la innovación como palanca de recuperación económica". El mismo presidente de la Comisión Europea, Durao Barroso, afirma el 4 de septiembre que "la Comisión debe llevar la política de investigación de la UE a un nuevo nivel y convertirla en uno de los motores de nuestro desarrollo sostenible".

Pero, ¿Qué es eso de innovar y, sobre todo, cómo se hace? La innovación, entendida como la aplicación de un método de producción, de organización o de suministro nuevo o significativamente mejorado, puede ser de varios tipos. Euskadi presenta los números propios de una región altamente industrializada y rica: el 30% del PIB es de origen industrial (casi 10 puntos superior a la media europea), el PIB per cápita de Euskadi es un 37% superior a la media de los 27 países miembros de la Unión Europea, y, con una puntuación de 0,964, Euskadi ocupa el tercer puesto mundial en cuanto al Índice de Desarrollo Humano se refiere. Es necesario que las empresas vascas realicen continuamente actuaciones de innovación en sus productos y en sus procesos de producción. El origen principal de estas innovaciones, no es otro que las actividades de investigación y desarrollo, realizadas por los



*"El origen de las innovaciones, cuando se está compitiendo con los mejores, no es otro que las actividades de investigación y desarrollo, realizadas por los departamentos de I+D de las empresas en colaboración con otros agentes del sistema de ciencia y tecnología"*



**CARLOS GARCÍA**  
Es coordinador de Investigación de Mondragon Unibertsitatea. En la actualidad es Director de Investigación de la Escuela Superior de MU.

departamentos de I+D de las empresas, en colaboración con otros agentes del sistema de ciencia y tecnología.

## TIPOS DE INVESTIGACIÓN

La Comisión Europea diferencia tres tipos de actividades de investigación: investigación fundamental, investigación industrial y desarrollo experimental, que es la más cercana a las actividades de innovación tecnológica. Las tres son evidentemente necesarias, aunque el protagonismo de la empresa sea menor cuanto más nos alejamos de la aplicación industrial. Los indicadores muestran que estamos bien situados en investigación fundamental (es decir, científica), ocupando estatalmente la posición que nos corresponde en relación al

tamaño de nuestra economía (novenos a escala mundial). No obstante, no sacamos rendimiento industrial a esa producción científica y así, por ejemplo, según el "European Regional Innovation Scoreboard", el Índice RIS es de 0,55 en Euskadi (justo en la media de la Unión Europea), muy alejado del 0,90 de la región de Estocolmo en Suecia. En consecuencia, nuestro posicionamiento como país es bueno en "ciencia" y bastante malo en "tecnología", lo que hace que la auténtica asignatura pendiente sea la Investigación Aplicada y la Transferencia de conocimientos desde los agentes que lo generan (universidades y centros tecnológicos) a los que lo convierten en innovaciones industriales.

## INGENIARITZA IKASKETAK

# KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUA EUSKARAZ, ZAILTASUNEI AURRE EGINEZ

KARRERA AMAIERAKO PROIEKTUA EUSKARAZ EGITEA EZ DA LAN MAKALA MU-KO INGENIARITZA IKASLEENTZAT. IZAN ERE, MATERIAL BIBLIOGRAFIKO GEHIENA GAZTELERAZ DAGO, ETA ITZULPENAK EKIDITEKO, ITURRIEN JATORRIKO HIZKUNTZAN EGITEA DA OHIKOENA. ANE BALENZIAGAK, ORDEA, AURRE EGIN DIE ZAILTASUNEI ETA EUSKARAZ AURKEZTU DU PROIEKTUA

Pasa den azarotik, Fagor Etxetresna Elektrikoen Egosketa sailean ari da Ane Balentziaga getariarra Karrera Amaierako Proietua egiten. Industria diseinuko ingeniaritza teknikoa ikasi ostean, birziklapena aukeratu du bere proiektuaren ardatz. Irailaren 21ean aurkeztu zuen lana, eta euskaraz gainera.

Proietua euskaraz egitea oztopo bat da ingeniaritza ikasle askorentzat, iturri guztiak gaztelera eta ingelesez baitaude. Aneren iritziz, “gehiengoak gaztelera aukeratu ohi du, testu dezente itzuli behar baita. Ikasleekuste dute proietua euskaraz eginez gero, lan gehiago egin beharko dutela”.

Balentziagak, ordea, euskaraz egiteko apustua egin zuen hasiera hasieratik. “Ez zitzaidan bururatu ere egin gaztelera egitea. Ez dut arazorik gaztelera idatzeko, baina hitz egiterakoan askoz hobeto moldatzen naiz euskaraz. Niretzat gaztelera egitea litzateke zaila”. Horren haritik, Mondragon Unibertsitateak proietua euskaraz egitera bultzatzen ditu ikasleak. “Proietuak aurkeztu zizkigutenean euskaraz egitera animatu gintzuten”, adierazi du Anek.

Gaurkotasun handiko gai bat aukeratu du Anek Karrera proietua egiteko, birziklapenaren



arloa. “Erabiltzaileei zaborra sailkatzen lagunduko dien hormako etxetresna baten kontzeptua landu dut”. Helburua litzateke produktuak sailkatzea eta zaborraren bolumena txikitzea, hau da, erabiltzaileak edukiontzira ahalik eta gutxiengoa joate ahal dela. Hasierako xedea aparatuaren diseinua egitea bazen ere, azkenean kontzeptua lantzera mugatu da, “denbora aldetik zailtasunak izan ditut eta larri ibili naiz”, adierazi du.

Itzulpenak egiterakoan, hiztegiaren aldetik aurkitu ditu Anek oztoporik handienak, bir-

ziklapenaren inguruko hitz tekniko ugari erabili ditu eta. Hala ere, zalantzak argitzerakoan oso baliagarria egin zaio enpresan bertan sortu zuten hiztegira jotzea.

Anek argi dauka proietua euskaraz egiteak ez diola lan gehigaririk eragin, beraz, mezu argia bidali nahi die ikasleei, anima daitezela euskaraz egiten. Izan ere, berak dioen moduan, “proietuak euskaraz egiten animatzen bagara, gero eta ohikoagoa izango da euskarazko iturriak aurkitzea”.

**ANE BALEN-TZIAGA**  
Getariarra, arraunlaria eta ingeniarria. Euskararen aldeko apustu naturala egin du Ane Balentziagak. Bere proiettuak hain modan dagoen birziklapena hartzen du aintzat.

# MASTERRETAKO ESKAINTZA HIRIBURUETARA HEDATU NAHIAN

**ESPAINIAKO GOBERNUAK ANECA  
ERAKUNDEAREN BITARTEZ ONARTUTAKO  
LAU MASTER ESKAINIKO DITU MU-K,  
HORIETAKO HIRU AURTEN ABIATU DIRA.  
BOLOGNARA EGOKITUTAKO GRADUONDOKO  
IKASKETA OFIZIALAK IZANGO DIRA. GUZTIEN  
ARTEKO ELKARLANA IZAN DA  
ARRAKASTAREN GAKOA**

Mariam Bilbatua HUHEZIkoa, Jose Luis Abaunz EZFkoa eta Xabier Sagarna GEPEkoak dira hiru fakultateetako etengabeko formazioko arduradunak. Mahaia-ren bueltan jarri ditugu hitz egiteko Mondragon Unibertsitateak eskaintzen dituen masterren gainean. Elkarlana da hirurek ahoan darabilten hitza, fakultateen arteko eta beste erakunde batzuekin egiten ari direna. Besteak beste, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Merkataritza Ganbarekin eta Innobasque erakundearekin. Elkarlana ei da arrakastaren gakoa. “Masterren eskaintzan MU ondo kokatuta dago eta aurrerantzean Euskal Herriko hiriburueta hedatu nahi dugu gure eskaintza”.

Xabier Sagarnaren aburuz, MUren hausnarketa estrategikoen ondorioz, unibertsitatearen

graduondoko eskaintza Deba-goinetik kanpo hedatu beharra dago, eta, horren haritik, dagoeneko zenbait master Gasteizen, Donostian eta Bilbon eskaintzen ari dira. Era berean, proiektu experimental bat garatzen ari dira, graduondokoak on-line eskaintzeko asmoz. “Gure unibertsitateak duen esperientzia hedatzea ezinbestekoa da, batez ere atzerrira begira. Eta zentzu horretan malgutasunez jokatu beharra dugu. Horrexegatik graduondoko eskaintza on-line emateko aukera lantzen dihar-dugu” adierazi digu Mariam Bilbatuak.


## HUHEZI, ESTATUKO LEHENA

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntza Eskoletan arituko diren irakasleen prestakuntzari zuzendutako

**COLABORA-CIÓN ENTRE FACULTADES**  
El éxito de la adaptación al Espacio Europeo de la oferta post grado de Mondragon Unibertsitatea refleja el continuo trabajo en común de las tres facultades y organismos como Innobasque.

masterra jarri du abian aurten Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak. Master ofizia-la da, eta irakaskuntza lanbide-anaritzeko ezinbestekoa. Hori da, hain justu ere, Bognak ekarritako aldaketa nagusietako bat. “Lizentziaturek master hau egin beharko dute irakaskuntzan lan egin nahi izanez gero”.

Graduondoko ikasketen oinarrizko programak, alde batek, formazio teoriko-praktikoen eskaintzen ditu, eta bi arlo





ARGAZKIA: J. ARANZABAL

nagusi jorratzen ditu: ikasketa prozesu orokorrak ulertzeko eta kudeatzeko estrategian ezagutzari lotutakoa eta didaktika espezifikoen lanketari zuendutakoa. “Ikasleek, gainera, praktikak eta azken proiektua egin beharko dituzte”. Mariam Bilbatuak adierazi digunez, estatuko lehenengo unibertsitatea izan da HUHEZI Europara egokitutako eskaintza egiten. “Izan ere, sekulako garrantzia eman diogu gai honi Eskoriatzako fakultatean”.

#### **EZF-N BI TITULU OFIZIAL**

Enpresa Zientzien Fakultatean Europako esparrura egokitutako bi titulu eskainiko dituzte. Jose Luis Abaunzarduradunaren esanetan “2005eko dekretuaren arabera lortutako ofizialtasuna berretsi digu orain Espainiako Hezkuntza Ministerioak, Unibertsitateen Idazkaritza Orokorraren bitartez”. MBA, Enpresa Zuzendaritzan masterra, eta Enpresa kooperatiben Gestioan masterra dira oraingo urtean EZFk eskainiko dituen bi titulu

#### **RESPONSABLES UNIVERSITARIOS**

**Jose Luis Abaunz (EZF), Xabier Sagarna (GEP) y Mariam Bilbatua (HUHEZI)** son los responsables de la oferta postgrado de MU.

ofizialak. MBA bi formatutan eskainiko dute; bat ‘full time’ eran eta eskolak emango dituzte Bidasoako Campusean. Lizentziatu berri diren ikasleak izaten dira nagusi master horretan; bigarren formatua Oñatin eskainiko da, eta enpresa arloan dagoeneko lanean dihardutenentzat da egokia. Bigarren horrek urte eta erdiko iraupena izango du, ikasleek lana eta ikasketak parteka ditzaten.

Bigarren masterrak helburu →



oso argia du, kooperatibismoaren gaineko esperientzia hedatzea mundura, eta kanpoko jendearentzat egokia da. Hego Ameriketako etor daitezkeen ikasleentzat da apropoza. Asko tan, ordea, ez da posible izaten, oso garestiak izaten direlako. Horri aurre egiteko diru laguntzak eskuratzeko aukera badagoela aurreratu digu Abaunzek. "Gaur egun, orain arte ez bezala, edozein master egiteko diru laguntzak izaten dira. Eusko Jaurlaritzak, Madrilek eta beste zenbait erakundek eskaintzen dituztenak. Graduondoko ikasketak egiteko gazteek diru laguntzak eskuratu ahal izango dituzte". Finantzazio arloan MU lan handia egiten ari da, bertako zein kanpoko ikasleeilaguntzak errazteko.

#### **ELKARLANA INNOBASQUE ERA-KUNDEAREKIN**

Goi Eskola Politeknikoak ere urtarrilean jarriko du abian Europara egokitutako master bat. Enpresa Zientzien Fakultatearekin eta Innobasque era-kundearekin elkarlanean anto-

latutako titulua izango da. Enpresa Berrikuntza eta Proiectuen Kudeaketa da masterraren izenburua. "Innobasque era-kundean Miguel Sáez de Vignera dagoenek harremanak sendotu egin ditugu erakunde horrekin", adierazi digu Xabier Sagarnak. "Master honek hiru oinarri jorratuko ditu. Enpresaren ezagutza, berrikuntzako erreminten antolakuntza eta proiektuak kudeatzeko gaitasuna".

XXI mendeko lider izañ nahi duenak hiru esparru horiek kontrolatu beharko ditu, Xabier Sagarnaren esanetan. Masterra bi modalitatetan eskainiko du Goi Eskolak, bat 'executive' formatuan eta bestea 'full time'. "Lanean dihardutenek eta lizenziatu berrieik aukera izango dute horrela ikasketak egiteko". Lehen urtarrilean abiatuko da, eta full time formatuduna datorren urteko irailean. Titulu ofiziala Zamudioko parke teknologikoan eskainiko da, MUk eta Innobasquek duten hitzarmenari esker.

#### **EHUN IKASLETIK GORA**

Aurreikuspenak betez gero, graduondoko ikasketak ofizial horiek ehun bat ikaslek egingo dituzte aurten. HUHEZIn 28 ikasle daude matrikulatuta, Enpresa Zientzien Fakultatean 50 inguru eta Goi Eskola Politeknikoan 25 ikasle aurreikusten dituzte. Kontuak kontu, honelako eskaintzak gero eta ikasle gehiago ditu eta MUk espazio propioa eskaini nahi du arlo horretan. "Beste unibertsitate batzuetan lizenziatu berriei bideratutako eskaintza dago, eta beste askotan soilik executive formatudunak". Horri aurre egiteko, erdi-bideko eskaintza ofiziala egin nahi du Mondragon Unibertsitateak, Jose Luis Abaunzen esanetan. "MUk eskaintzen ditu executive masterrak, baina guk lanean dauden pertsonen-gana iritsi nahi dugu, 30 urte inguruko langileei zuzendutako produktua eskaini nahi dugu, enpresen karguak hartzen dituztenei, enpresaz aldatu nahi dute-nei. Hori da gure espazioa, beste unibertsitate batzuetan horrelako eskaintzarik ez dago".

#### **PUESTA EN COMÚN**

Imagen del momento de la entrevista concedida por los tres responsables de postgrado de Mondragon Unibertsitatea a la revista MUUniversitas. La cita sirvió para que Mariam, José Luis y Xabier compartieran opiniones y debatieran sobre las estrategias de futuro.



## INNOVACIÓN ABIERTA

Una de las respuestas más obvias a la hora de buscar soluciones a la crisis proviene de la innovación, o para ser más específicos, de la necesidad de acelerar la innovación. En esta labor puede ser muy interesante que las empresas acometan procesos denominados de Innovación Abierta. Este tipo de innovación es aquella concebida como un sistema abierto, en el que participan tanto agentes internos como externos a la organización. El fin es poner en práctica el programa de la Inteligencia Colectiva, es decir, se trata de conectar a ese conjunto de personas para que a través de la competición y la colaboración entre ellos emerja un producto, idea, etc. lo más inteligente posible.

Siguiendo la taxonomía desarrollada por el *Center for Collective Intelligence* del MIT y por las prácticas que poco a poco se van viendo, sugerimos tres grandes maneras de poner en marcha programas de inteligencia colectiva: Concurso, Colección y Colaboración.

- El concurso es aquella forma de poner en juego la inteligencia colectiva, en la que los miembros de la comunidad (por ejemplo mis clientes, usuarios, prescriptores, etc.) no tienen que colaborar entre ellos; es más, compiten entre sí para crear la mejor de las soluciones posibles como respuesta a un problema concreto. Normalmente, las personas tratan de ocultar sus creaciones, al menos hasta el último momento, a ojos de los demás, para no dar pistas.

- En el tipo colección, los miembros de la comunidad no compiten entre sí e intercambian sus contenidos, sin que ello signifique que colaboren directamente a la hora de crearlos. El incentivo en este tipo de prácticas de inteligencia colectiva no es un premio tangible, sino más bien aspectos sociales como la reputación, el estatus, etc. No se trata de iniciativas para crear desde el conjun-

to, sino para explicitar lo que cada individuo puede dar de sí desde el punto de vista de la innovación. La principal diferencia entre las dos formas la encontramos, en que la colección es preciso generar mecanismos de gestión de comunidades como pueden ser las normas sociales.

*“En este Año Europeo de la Creatividad y la Innovación, apostemos por globalizar nuestros procesos de innovación”*

- La colaboración son aquellas iniciativas que persiguen desarrollar un contenido de forma coordinada y conjunta. El caso más paradigmático, aunque nada tenga que ver (¿o sí?) con la innovación, es un artículo de la Wikipedia, donde varias personas construyen juntas un mismo elemento. En este tipo de iniciativas, las necesidades de “gestionar” la comunidad se hacen aún más evidentes, pues no sólo se comparte ya una relación o un espacio, sino también unos objetivos y los caminos para lograrlos. Los incentivos pasan también a ser diferentes, tomando gran importancia el sentido o el propósito a lograr mediante la comunidad como motor de la acción de los individuos. Por todo ello, aunque en principio esta forma que hemos llamado “colaboración” pueda resultar más enriquecedora y más cercana a lo que entendemos normalmente por inteligencia colectiva, es también más difícil de llevar a cabo.

En definitiva, en este Año Europeo de la Creatividad y la Innovación, apostemos por globalizar nuestros procesos de innovación. Un aire fresco que todos agradeceremos en momentos difíciles como el actual.

**David  
Sanchez y  
Aitor Urzelai**

**ALECOP**

# LANA, IKASLEAREN PRESTAKUNTZARAKO OSAGARRIA



**IZASKUN OJANGUREN**  
Como muchas otras jóvenes en Mondragon Unibertsitatea, Izaskun Ojanguren alterna estudios en HUHEZI con su trabajo en Alecop. Por las mañanas acude a la universidad y por la tarde a su puesto de trabajo.

**IKASLE ASKOK, IKASKETA PROZESUAK IRAUTEN DUEÑ BITARTEAN, LAN EGITEN DUTE PRESTAKUNTZARAKO OSAGARRIA DELAKO. SOLDATA IRABAZTEAZ GAINERAK, PRES-TAKUNTZA ERE JASOTZEN DUTE LAN-ESPERIENTZIAREN BITARTEZ, LAN EGITEN GARATZEN BAITIRA KONPETENTZIA OROKORRAK**

Horietako ikasle bat dugu Izaskun Ojanguren. HUHEZIko fakultatean ikasten ari da, irakasle ikasketetako hirugarren urtea, Haur Hezkuntza espezialitatean, eta aldi berean Alecopen lan egiten ari da, lau ordu egunero. Izaskunekin hitz egiteko aukera izan dugu.

## Noiz hasi zinen lanean eta zer-gatik?

Orain dela urte bat eta hiru hilabete hasi nintzen Alecopen lanean, HUHEZIn ikasketak egiten ari naizen bitartean, diru

apur bat irabazteko aukera ona dela ikusten bainuen.

## Zeintzuk dira Alecopen dituzun eginkizunak?

Komertzial saileko administrazioko laguntzaile bezala egiten dut lan. Nire eginkizunak nahiko entretenigarriak direla esan dezaket, gauza asko egiten baititut. Alde batetik, eskaerak sartu eta fakturatzan ditut; bestetik, telefonoz egiten diren erreklamazioei erantzuten diet. Eginkizun entretenigarriak dira, eta denbora segituan pasatzen zait.

## Zeintzuk dira zure lanetik gehien baloratzen dituzun gauzak?

Gehien baloratzen dudana pertsonekin ditudan harremanak dira, nire lankideekin zein hemendik kanpora dagoen jendearekin dudan erlazioa. Gainera, beraiek laguntzen didate lana ahalik eta ondoen betetzen. Era berean, esan dezaket

lan egiten dudan departamentuan oso giro ona dagoela eta horrek ere asko laguntzen dueña. Izan ere, talde bezala funtzionatzen dugu.

## Alecopen dituzun eginkizunak zure ikasketekin zerikusia handirik ez badute ere, zure prestakuntzarako elementu osagariak edota baliagarriak ikus-ten dituzu?

Harremanen ikuspegitik esan dezaket, asko ikasi dudala egunero jendearekin harremanetan nago-eta. Enpresetan askotariko harremanak daude eta jakin behar duzu nola moldatu guztietara, komunikatze-ko era aldatzen baita egoera batetik bestera. Lan egitea normalean inoren gustuko ez den arren, esan dezaket nire kasuan oso aberatsa izan dela. Gauza berri asko ikasi ditut, eta auke-ra izan dut, esperientzia desberdinak bizitzeko ikastetxeen ikasten ez direnak.

**MUGIKORTA-SUNAREN ALDEKO APUSTUA**

Mondragon Unibertsitateak aspaldi egin zuen bere ikasle zein irakasleen mugikortasunaren aldeko apustua. Irudiko Praisku Aranburu, Aitor Lizarazu eta Unai Aldasorok proiektuak eta ikasketak egindituzte nazioartean.

# EPS APUESTA POR LA MOVILIDAD INTERNACIONAL



ARGAZKIA: MU

LA ESCUELA POLITÉCNICA SUPERIOR OFRECE CADA AÑO UN AMPLIO MARCO DE PROGRAMAS EN LOS QUE PUEDEN PARTICIPAR LOS ALUMNOS. ESTOS SON ALGUNOS DE ELLOS

ERASMUS estudio, en el que los alumnos realizan un semestre académico en el extranjero; Proyecto fin de carrera de larga duración, en el que los alumnos realizan una estancia de un curso académico en universidades, empresas o centros tecnológicos extranjeros; Doble Diploma, en el que los alumnos realizan como mínimo un año y medio de estancia en una universidad, actualmente francesa; y Programa GOIER, en el que los alumnos realizan un segundo ciclo o master en el extranjero.

## DOBLE DIPLOMA

EPS tiene firmados seis acuerdos de doble diploma con cuatro universidades francesas: el Instituto Nacional de Ciencias Aplicadas de Toulouse (INSA), la Escuela Central de Nantes (ECN), la

Escuela Nacional Superior de la Energía, del Agua y Medioambiente de Grenoble (ENSIEG) y la Escuela Nacional Superior de Hidráulica, Electrotécnica, Electrónica, Informática y de las Telecomunicaciones de Toulouse (ENSEEIH).

Tras un proceso de selección Praisku Aranburu, Aitor Lizarazu y Unai Aldasoro, alumnos de la Escuela Politécnica Superior e INSA han finalizado sus estudios recientemente y entre los tres forman la primera promoción de alumnos con los dos diplomas o títulos: el de Ingeniero Industrial por Mondragon Unibertsitatea y Diplôme D'Ingenieur por el INSA.

Preparados para trabajar sin problemas en cualquier empresa tanto española como francesa. Estos alumnos cursaron los primeros dos años y medio en la Politécnica. El segundo semestre del 3º año se incorporaron al INSA. Cada uno de ellos en un grupo diferente de alumnos aprendiendo a desenvolverse en una universidad francesa. Después de año y medio, los tres

alumnos volvieron a incorporarse a GEP, compartiendo la experiencia del INSA con nuestros alumnos.

## FIN DE CARRERA EN EL EXTRANJERO

